

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**14/2017 Foru Araua, uztailaren 12koa, ekainaren 13ko 4/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena, aldatzen duena abenduaren 13ko 37/2013 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergarena, jabetza intelektualaren edo industrialaren ustiatzearen murrizketari dagokionez**

Arabako Batzar Nagusiek, 2017ko uztailaren 12an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

14/2017 Foru Araua, uztailaren 12koa, ekainaren 13ko 4/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena, aldatzen duena abenduaren 13ko 37/2013 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergarena, jabetza intelektualaren edo industrialaren ustiatzearen murrizketari dagokionez,

#### HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, ekainaren 13ko 4/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, aldatzen duena abenduaren 13ko 37/2013 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergarena, jabetza intelektualaren edo industrialaren ustiatzearen murrizketari dagokionez.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Biltzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Biltzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Biltzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

**ARTIKULU BAKARRA.** Baliozkotuta geratu da ekainaren 13ko 4/2017 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, aldatzen duena abenduaren 13ko 37/2013 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergarena, jabetza intelektualaren edo industrialaren ustiatzearen murrizketari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 12a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**